


eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

**UPV/EHU_n AZPIEGITURA ZIENTIFIKOA ETA FUNTS
BIBLIOGRAFIKOAK EROSI ETA BERRITZEKO LAGUNTZEN
DEIALDIA**

(2021)

ATARIKOA

Ikerketa sustatzea eta garatzea funtsezko ardatzak dira unibertsitatearen jardunean.

Ekintza honen helburua da tresneria espezializatua areagotu eta ikertzaileen esku jartzea, era honetara, ikertaldean edo ikerketa ekipoen gaitasuna handituz eta tamaina txiki eta ertaineko tresneriaren sorkuntza eta mantentze-lana sustatuz.

Xede honetarako 400.000 euro bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako kontratu programaren barruan, bikaintasuneko ikerkuntzaren, "Ikerkuntzan laguntzeko azpiegiturak bereganatzea, Euskal Herrian diren ikerketa azpiegiturak aintzat hartuta." izeneko ardatzean esleitutako finantzaketaren arabera aurrekontu kreditua aintzat hartuta. Kopuru hau gehitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu izateen arabera.

Horrela, bada, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) ontzat eman eta Gobernu Kontseiluari aurkeztu eta gero, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erabaki du argitara ematea UPV/EHUrako ekipamendu zientifikoaren eta funts bibliografikoen erosketa eta berritzea finantzatzeko laguntzen 2021eko deialdia.

1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da UPV/EHUn sail eta institutuak ikertaldeek eta Ikerketako Zerbitzu Nagusiek (SGIker) ekipamendu zientifiko eta funts bibliografikoak erosketa kofinantzatzea. Eskaria egiten duen ikertaldea finantzazio propioa izan beharko du eskatutako materiala erosteko, gutxienez ekipamenduaren edo funts bibliografikoaren kostuaren % 15 ordaintzeko beste, BEZ gabe.

Materiala abian diren ikerketa jarduerak garatzeko erabiliko da, honako helburu hauek betetzeko:

- Tresneria moderno eta eraginkorra eskuratzea.
- Tresneria berritzea, oraingo ikerketa ildoetarako balio ez duelako edo, kasurik txarretan, deskatalogatuta egoteagatik zerbitzu teknikorik ez daukalako zaharkituta geratu dena.

Ekipamendu zientifikoak barne hartzen ditu ikerketako ekipamendurako erabilera espezifikoa duen kostu handiko softwarearen lizentziak, software libreko edo doako lizentziarik ez balego.

2. oinarria. MODALITATEAK

Laguntzak honako helburuetarako emango dira:

A. Tresneria zientifiko berria erostea. Modalitate honetan, eska daitekeen gehieneko subentzioa 60.000 eurotakoa izango da.

Kanpoan geratzen dira:

- Ohiko ekipamendu informatikoa (ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, inprimagailuak, eskanerrak, eta abar).
- Obra zibila, aire egokiturako aparatuak eta altzariak.

Aldiz, ekipamendu informatikoa eta softwarea finantzatu ahal izango dira, ikerketarako ezinbestekoak badira. Halako ekipamendua finantzatzeko eskaerarekin batera, beharrezko justifikazio tekniko egokia aurkeztuko da, baita behar horrek ikerketa proiektu zehatzekin duen zerikusia ere. Hori guztia IKTen Gerenteordetzako zerbitzu teknikoek aztertu ahal izango dute, deialdi honi hel diezaioketen ala ez erabakitzeko.

Eskatutakoaren antzeko ezaugarriak eta aplikazioa dituen ekipamendua baldin badago SGIker unitate batean, zergatik berri behar den justifikatu behar da. Hala egin ezean, eskaera baztertu egingo da.

B. Berritzea ekipo zientifiko zaharkituak eta, bereziki deskatalogatuta dauden ekipoak eta gaur egun erositako gero 20.000 euro baino gehiago balio izango luketenak. Modalitate honetan, eska daitekeen gehieneko subentzioa 60.000 eurotakoa izango da.

C. Funts bibliografikoak edo datu baseak erostea, ikerketa proiektuak egiteko behar diren liburu multzo, bilduma edo datu baseak sail edo institutuaren ohiko funtsekin ordaindu ezin direlako, arlo horretako funts bibliografikoen batez besteko prezioa gainditzen dutelako edo UPV/EHUKo Bibliotekan ez daudelako. Inola ere ez da diru-laguntzarik emango aldizkarietako harpidetzak egiteko. Gehienez 10.000 eurotakoa dirulaguntzak emango dira.

3. oinarria. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- 3.1. Ondokoak izan daitezke honako deialdi honetan aurreikusten diren laguntzen eskatzaile:
- 3.1.1. SGIker unitateak.
- 3.1.2. Jarraian zehaztutako UPV/EHUREKIKO lotura motari buruzko baldintzaren bat betetzen duten eta abian dauden proiekturen batean edo ikertalde aktiboren batean parte hartzen duten ikertzaileek osatutako ikertaldeak:
- UPV/EHUREKIN lotutako lan kontratudun edo funtzionarioak, UPV/EHUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako pertsonala, zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikuluko modalitatearen arabera kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHURI atxikita dauden Ikerbasque programako pertsonala, UPV/EHU-CSIC ikergune mistoei atxikitako doktoreak eta irakasle atxikiak edo lehenago izandakoak, plaza iraunkor baterako kreditatuta badira.
 - Pertsonal ez iraunkorra; honi dagokionez, UPV/EHUREKIKO kontratu edo loturak 2022ko abenduaren 31ra artekoa izan behar du.
Horren harira, besteak beste, honako hauek izango dira langile ez iraunkorrak:
 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (Zientzia eta teknologiaren espainiar sistemara sartzeko kontratua) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUREKIN lotura duten ikertzaileak. Kasu hauetan, kontratuaren iraupena 2022ko abenduaren 31a baino lehen amaituko balitz, kontratuaren arduradunak data horretarako lan lotura bermatzeko konpromisoa agertu ahal izango du.
 - UPV/EHUREN eta Eusko Jaurlaritzaren deialdietako doktoratu ondoko ikertzaileak.
Prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileen kasuan, beren doktorego tesiaren zuzendariak proiektuaren taldeko kide izan behar du.
 - Unibertsitatearen arautegian ezarritako prozeduren arabera, ikerkuntzarako lankide akademikoak.
- 3.2. Ezin izango dituzte deialdi honen baitako laguntzak eskatu egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:
- Epai irmoz kondenatuta daudenak dirulaguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
 - Dirulaguntzaren bat itzultzera behartuta egonik, diru guztia itzuli ez dutenak.
 - Ebazpen irmo bidez zigortuta daudenak, lege honen edo beste lege batzuen arabera, dirulaguntzak ez jasotzera.
- 3.3. Gutxieneko ikertalde eskatzailea hiru ikertzailek osatuko dute eta horietako hiru 3.1.2.a atalean adierazitako kolektiboetakoak izan beharko dira.
- 3.4. Gutxieneko ikertaldeko hiru kideetako bat ikertzaile nagusia izango da. Ikertzaile nagusiak doktore titulua eta UPV/EHUREKIKO enplegu lotura izan behar du eta arduraldi osoan aritu behar du.
- 3.5. Ikertzaileek ezin dute parte hartu modalitate batean baino gehiagotan aldi berean.
- 3.6. Deialdi honetan ezin izango dute parte hartu 2020ko deialdian finantzazioa izan duten ikertaldeetako ikertzaileek.

Aurreko 3.5 eta 3.6 ataletan ezarritako mugak ez zaizkie SGIkerreko eskaeretako ikertzaile nagusiei aplikatuko.

4. oinarria. DIRULAGUNTZEN EZAUGARRIAK ETA ZENBATEKOA

- 4.1. A eta B modalitateetako eskaerak ekipamendu osoak lortzeko dira eta ezin da horien zati bat erosteko eskaerarik aurkeztu.
Horrez gain, eskaeran eskatutako ekipoa jartzeko tokia badagoela adierazi beharko da.
- 4.2. Bestalde, funts bibliografikoak erosteko eskaeretan, C modalitatekoetan, obren izenburuak, egileak, argitaratzaileak eta, oro har, obrak identifikatzeko datu guztiak eman beharko dira.
Eskaera horiekin batera, UPV/EHUKO Bibliotekaren ziurtagiri bat aurkeztuko da, eskatutako funtsen egokitasunari buruzkoa.

- 4.3. Emandako subentzioak, gehien dela, eskatutako ekipamendu edo funts bibliografikoaren BEZ gabeko kostuaren %85a finantzatu ahal izango du.
- 4.4. Ikertalde eskatzaileak eskuragarri izan beharko ditu ekipamendua kofinantzatzeko funtsak, eskaera aurkezteko unean, honako baldintza hauekin bat etorrira:
- a) Ekipamendua finantzatzeko funtsak gastuen edozein kapitulutan egon daitezke. Eskaera jasotzean, funts hauek blokeatu egingo dira kontabilitatean.
 - b) Ez da onartuko beste deialdi batean egindako finantzazio eskaeretatik ustez lortuko diren funtsak jartzea.
 - c) Ekipamendua finantzatzeko funtsen jatorri diren deialdiek funts horiek xede honetarako erabili ahal izatea onartu behar dute.
 - d) Ez da baterako finantzaziotzat hartuko aurretiaz dagoen ekipamendua, bere izaera dela eta, erosi nahi denaren osagarri izan daitekeena.
- 4.5. Deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira bestelako laguntzekin, hauen ezaugarriak edozein direla ere eta alde batera utzita zein erakundek eman dituen, baldin eta laguntza guztiak batuta erosketaren kostua gainditzen ez badute. Ikertalde eskatzaileak adierazi beharko du zein laguntza lortu edo eskatu dituen helburu bererako, bai espedienteari hasiera ematean eta bai aurrerago ere, eta gorago azaldutako baldintza betetzeko dirulaguntzari egin dakizkiokeen murrizketak onartuko ditu.

5. oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEA

- 5.1. Eskaria ikertzaile nagusiak egin behar du Ikerketaren arloko errektoreordeari zuzenduta, eta UPV/EHUn egoitza elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuko da, erregistro orokorreko bulegoetako batean, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedurari buruzko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan jasotako prozeduretakoren baten bitartez.

Erregistro Elektronikoa erabiliz gero (<https://egoitza.ehu.es/eu/registro-electronico>); "Destino" atalean, lehenengo eta behin, "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adieraziko da, eta, bigarrenik, "Gestión de Investigación Convocatorias (U02000256)", "Solicita" atalean, berriz, hau zehaztu behar da: "Infraestructura 2021".

- 5.2. Honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- a) **Eskaera orria**, eredu arautua erabilia; eredia Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunean dago eskuragarri:

<https://www.ehu.es/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-azpiegitura>

Eskaeraren zati eta gutxieneko edukizat hartuko da orri hau; beraz, behin aurkeztu eta gero, eskatzaileak ezin izango du dokumentuaren edukia, ez eta ekipo eskatzailearen osaera ere. Eskatzailearen batek ez baditu baldintzak betetzen, deialditik kanpo geratuko da, eskariaren arduradunari jakinarazi ondoren.

SGIker unitateen kasuan, SGIker-eko zuzendaritzaren alde aurretiko baimena aurkeztu beharko da.

- b) **Funtsak erabili ahal izateko baimena**, baterako finantzazioaz arduratzen den unitate organikoko ikertzaile nagusia ikertaldeko kide ez denean.

- c) B modalitateko eskaeren kasuan, **ondarean baja emateko baimena**, UPV/EHUn inbentario ofizialetik ekipo zaharkitua erretiratu dadin. Dokumentu hau laguntza eskatu duen eta ekipamendu zaharkitua kokatuta dagoen sail edo institutuko zuzendariak sinatu beharko du.

- d) **Memoria**, eredu normalizatua erabilia (Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunean eskuragarri); bertan, ekipamendu hori zer ikerketa proiektutan, nola abiatutakoetan hala eskaturikoetan, erabiliko den adieraziko da espresuki.

Horrez gain, memorian ekipamenduaren ezaugarri teknikoak deskribatu behar dira, marka edo modelo zehatzik jarri gabe; deskribapen hori ekipamenduaren hornikuntza kontratatze prozesurako beharrezko dokumentazioa prestatzeko erabiliko da.

Dokumentu hau eskaeraren zatitza eta gutxieneko edukizat hartuko da, eta ezin izango da zuzendu.

- e) Gutxieneko ikertaldea osatzen duten ikertzaileen **curriculum**.

- f) Ekipoa hornituko duen merkataritza enpresaren **eskaintza edo proformako faktura**, eskaturiko materialaren ezaugarri teknikoak eta prezioa, BEZ barne, azalduz.

5.3. Eskaerak UPV/EHUKo bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak kanpoko prozesu baten bidez balioetsiko dira Ikerketarako Estatuko Agentzia, Ebaluazio eta Koordinazioaren azpiatala (lehengo ANEP) baliatuz, eta ebaluatzaileek ez dira euskaldunak izango. Ikerketaren arloko Errektoreordetza arduratuko da euskaraz aurkezturiko eskabideak itzultzeaz, Euskararen arloko Errektoreordetza bidalita. Dagokion itzulpena jaso ostean, posta elektronikoen bidez bidaliko zaio ikertzaile nagusiari, eskabidean adierazitako helbide elektronikora, eta hamabost egun balioduneko epea izango du itzulpena gainbegiratzeko eta ados dagoela adierazteko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestoreak mezu elektronikoa ematerakoan igortzen duen egiaztatzea. Adierazitako epea igaro ostean, ikertzaile nagusia itzulpenarekin ados dagoela ulertuko da.

6. oinarria.- ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi hau irekita egongo da Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunean argitaratu eta hurrengo 30 egunetan.

7. oinarria. ESKAERAK BIDERATU ETA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

- 7.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo ditu deialdi honetako laguntzen kudeaketa lanak, Ikerketaren gestioko zuzendaritzaren bidez.
- 7.2. Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak datu edo baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskaeren zerrenda argitaratuko du Ikerketako Errektoreordetzaren web gunean, eskaera bakoitzak zer falta duen zehaztuz. Hamar eguneko epea irekiko da, zerrenda argitaratzen denetik hasita, dokumentazioa osatzeko. Epe hori igarota ez bada akatsa zuzendu, ulertuko da eskaria bertan behera utzi dela.
- 7.3. Ikerketaren Estatuko Agentziako Ebaluazio eta Koordinazioko Azpiatalak (lehengo ANEPek) ebaluatuko ditu eskaerak, eskaeraren arduraduna den ikertzaile nagusiak aukeratutako ebaluazio arloan.
- 7.4. Dirulaguntzak esleitzeko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

7.4.1. Eskaeraren behararen justifikazioa (0-40 puntu)

- Eskaturiko ekipoaren edo funts bibliografikoen erabilerrari buruzko informazioa. Esaterako, erabilera maila, horiek erabili izan dituzten ikertzaileak, inguruan diren antzeko ekipo edo funtsak, eta abar (10 puntu).
- Eskaturiko ekipoa edo funtsak zenbateraino diren egokiak edo beharrezkoak horien erabilera eskatzen duten ikerketa ildoetarako, helburuak lortzeko eta ikerketarekin jarraitzeko (10 puntu).
- Eskaturiko ekipamenduarekin edo funtsekin garatu beharreko jardueren bidez lortu nahi diren emaitza zientifikoak eta horiek gizarte eta ekoizpen inguruan izango dituzten ondorioak (10 puntu).
- Beste ikertalde batzuekiko partekatutako erabilera (5 puntu).
- Eskatzaileen kopurua (5 puntu).

7.4.2. Ikerketa taldearen zientzia ibilbidea (0-40 puntu)

- Eskatzaileek azken bost urteotan lortutako emaitza zientifikoak (15 puntu).
- Gutxieneko ikertaldearen curriculum (15 puntu).
- Eskatzaileek finantzazioa jaso duen zein ikerketa proiektutan parte hartzen duten edo parte hartu duten azken bost urteotan (10 puntu).

7.4.3. Batera finantzatzeko ahalegina (0-20 puntu)

Ebaluazio prozesuan, faktore esanguratsua izango da baterako finantzaziorako aukera, baldin eta deialdian ekipamendua erosteko eskaturiko gutxieneko kopurutik gorakoa bada.

Atal honen balioespena honako irizpide hauekin bat etorrira egingo da:

- Baterako finantzazioa = %15 : 0 puntu

- $\%15 \leq \text{baterako finantzazioa} \leq \%75 : [\text{baterako finantzazioaren } \% - 15/3]$
- Baterako finantzazioa = $\%75 : 20$ puntu

Finantzaketa lortze aldera nahitaezkozat joko da (baina ez du zertan nahikoa izan behar) 7.4.1 eta 7.4.2 irizpideen arteko puntuazioaren batuketa 60 puntutatik gorakoa izatea.

8. oinarria.- EBAZPENEA

- 8.1. UPV/EHUKO IGBBK, egindako ebaluazioei buruzko txostenak ikusita, finantzatu beharreko eskaeren zerrenda lehenetsia osatuko du, gomendatutako aurrekontuak barne, eta Ikerketaren arloko errektoreordeari igorriko dio, beronek eman beharreko erabakia eman dezan. Dirulaguntza edo subentzioen zenbatekoa ebaluazio irizpideen eta aurrekontuak ematen dituen ahalbideen arabera izango da.
- 8.2. Ikerketaren arloko errektoreordearen erabakiaren bidez argitaratuko da laguntza hauek emateko behin-behineko erabakia (Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da).
- 8.3. Eskatzaileek 10 eguneko epea izango dute, erabakia argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, onartzen dutela edo uko egiten diotela adierazteko, edo egokituz jotako alegazioak aurkezteko. Emaniko dirulaguntza eskaturikoa baino txikiagoa denean, eskaria egin duen ikertzaile nagusiak Ikerketaren Gestiorako Zuzendaritzari finantzazio osagarria, hau da, eskatutako finantzazioaren eta emandakoaren arteko aldeari dagokiona, zein organikotan dagoen jakinarazi beharko dio aipatutako 10 eguneko epean. Informazio hori epe horren barruan jaso ezean, eskaera ezetsitatzeko joko da.

Alegazioak arrazoitzeko, ebaluazio txostena bidaliko zaio ikertzaile nagusiari.

Alegazioen dokumentua UPV/EHUn erregistro orokorreko egoitza elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuko da, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedurari buruzko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan jasotako prozeduretakoren baten bitartez.

Erregistro Elektronikoa erabiliz gero (<https://egoitza.ehu.es/eu/registro-electronico>); "Destino" atalean, lehenengo eta behin, "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adieraziko da, eta, bigarrenik, "Gestión de Investigación Convocatorias (U02000256)", "Solicita" atalean, berriz, hau zehaztu behar da: "Infraestructura 2021".

Adierazitako epea igaro bada alegaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko erabaki proposamena onartutzat joko da, eta interesdunak alegatzeko bere eskubidea indarririk gabe geratu dela ulertuko da.

Alegazioak IISIGek aztertuko ditu eta Ikerketaren arloko errektoreordeari jakinaraziko dio azterketa horren emaitza, errektoreordeak behin betiko erabakia eman eta argitaratu dezan. Ikerketaren arloko errektoreordearen erabakiaren bidez argitaratuko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean laguntza hauek emateko erabakia eta eskatzaile bakoitzari banako erabakia igorriko zaio.

- 8.4. Banakako erabakiaren kontra berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz.

Era berean, aipatu ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

5. oinarria. ESLEIPENA

- 5.1. Esleipenik lortuz gero, berori eskaturiko ekipamenduari egokituko zaio eta zenbatekoa ezingo da aldatu.
 - a. Eskaeran aipaturiko ezaugarriak dituen ekipoa zenbatetsitako kostua baino merkeago erosiko balitz, lortutako murrizketa bi finantzazioei aplikatuko zaie, betiere, eskaeran adierazitako baterako finantzazioaren ehunekoa mantenduta.
 - b. Eskaeran aipaturiko ezaugarriak dituen ekipoa zenbatetsitako kostua baino garestiago erosiko balitz, aldea talde eskatzaileak jarri beharko du.
- 5.2. Diruz lagundutako ekipamendua Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erosiko du zuzenean, betiere, UPV/EHUKO Gerentziak eta Kontratazio eta Erosketen Zerbitzuak ezarritako arauari jarraituz.
- 5.3. Diruz lagundutako funts bibliografikoak UPV/EHUKO Bibliotekaren bidez erosiko dira. Horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak Bibliotekari bidaliko dio eskaera.

- 5.4. Ordezkatutako ekipo zaharkituak Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzari adskribatuko zaizkio. Ekipoaren egoeraren arabera eta irakaskuntzan izan litzakeen aplikazioak aintzat hartuta, errektoreordetzak erabakiko du behin betiko kendu edo irakaskuntzan zein bestelako erabileran xedatzea.

6. oinarria. JARRAIPENA

- 6.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak antolatuko ditu diruz lagundutako eskaerei jarraipena egiteko prozedurak.
- 6.2. Errosteke izapideak behar beste lehenago hasi beharko dira erosketa espedientea, ahal den heinean, 2021eko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko baita. Ildo honetan, gomendagarria da data hau baino lehen burutu beharreko funtsak ez erabiltzea baterako finantzaketarako.

Ikerketaren Gestiorako Zuzendaritzak ezarriko ditu, ekipamendua errosteke prozesuaren hasieran, egin beharreko kontabilitate izapideak, UPV/EHUn erabilitako ekonomia gestiorako sistemarekin bateragarriak izango direnak.

7. oinarria. SUBENTZIOA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA

- 7.1. Ikertaldeari dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira, betiere, helburua betetzen bada, edo ikertaldeak dirulaguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian laguntza esleitzeko ebazpena aldatzeko erabakia ekar lezake eta, horren bidez, emandako laguntza murriztea edo kentzea.
- 7.2. Horretarako, dagokion administrazio prozedura burutuko da, eta gero, IGBBk proposamena edo txostena eginda, erabakia emango da, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari jarraiki. Erabakia ekipamendua errosteke laguntza eskatu zuen ikertaldeko ikertzaile nagusiari jakinaraziko zaio. Jakinarazpenean laguntza zenbatean murriztu den, baliogabetutako laguntzaren ordezkotako finantzazioa aurkezteko zer epe dagoen eta, hala badagokio, ekipamendua kontratatzeko prozesua baliogabetu beharra dagoen ala ez adieraziko da.
- 7.3. Honako kasu hauetan ulertuko da dirulaguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:
- Eskatzaileak eskaeran adierazitako ekipamendua errosteari uko egiten dionean, laguntza horretarako eman bazen ere.
 - Laguntza eman ondoren edo ekipamenduaren kontratazio prozesuan zehar, eskaeran adierazitako ekipamenduaren oinarritzko ezaugarriak aldatzen direnean, ekipamendu ezberdina dela interpreta badaiteke.

Nolanahi ere, ezaugarriak lizitatzailerak aurkeztutako eskaintzen prozesuaren parte gisa aldatzen badira, eskaintza onartzeko Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren oniritzia beharko da, egindako aldaketek ekipamenduaren ezaugarriak hobetzea edo ekipamendua aldatzea dakarten erabaki ahal izateko.
 - Ekipamendu bererako beste iturri batetik dirulaguntza jasotzen denean alde aurretik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
 - Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
 - Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatzeko.
 - Gastu bera aurrekontuko atal organiko bati baino gehiagori egozteko.
 - Deialdi honek diruz laguntzen ez dituen gastuak egiten direnean.
 - Proposatutako ekipamendua UPV/EHUK ezarritako kontratazio zentralizatutako prozedurak urratuz erosten denean.

Ildo horretan, UPV/EHUK ezarritako prozedura zentralizatuetatik kanpo edozein erosketa eginez gero, laguntzaren emakida itzuli beharko da, eta une horretara arte erabili gabeko finantzazioa kenduko da.

8. oinarria. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, dirulaguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko araei.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla.

9. oinarria. EMAITZEN BERRI EMATEA ETA EMAITZEN USTIAKETA

Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan edo emaitzok zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak edo patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honen aurka, zeinak administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegiaren aurrean, hura argitaratu eta hi hilabeteko epean. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Ikerketaren arloko errektoreordeari, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2020ko azaroaren 19an

José Luis Martín González
Ikerketaren arloko Errektoreordea
Vicerrector de Investigación